

MONTENEGROAR GUZTIOI, BEJONDEIZUELA!

Esterenzubi (2006.6.30)

Jendearen artean, estatu berrien sorrera herria beretik baino Nazio Batuen Erakunde edo beste estatuz gaindiko erakundeetatik eratorria izan behar duenaren ustea, ohikoa da. Izan ere, gure estatuaren berreraikuntza eta oraindik estatua izan gabeko herrien eraikuntza, inguruzten gaituzten estatu inperialistetatik edota munduko estatu indartsuenak sortutako erakundeetatik etor daitekeenaren ustea dago, eta hori, nagusiki, inperialistak eragindako mezuaren ondorioa baino ez da.

Montenegro-ko estatu berria ere errealki eraikia zegoen, hots, objektiboki estatu moduan funtzionatzen zuen, nahiz eta nazioartean errekonozimendu formala falta. Izan ere, berez bazenari forma emateko auto-determinazioarako erreferenduma erabiltzea nahikoa izan da. Kontuan izan behar dugu, erreferenduma montenegroar herriak, beraiek, euren boterea erabiliz, eraman dutela aurrera. Euren boterea erabili dute, benetako auto determinazioaren isla, alegia. Lortu duten eraikitze juridiko-politikoak, noski, benetako boterearen forma baino ez da. Nazio arteko erakundeak ere bere oinarrian benetako indarrak dituzte euskarritzat. Indarrean oinarritutako estatu berria, beste estatuen artean ematen diren indar ezberdin artean, lekua aurkitzen duenean baino ez da haien pareko egingo. Montenegroko estatuak, hain zuzen, bere lekua aurkitu du.

Alderdi “abertzaleak” egiten duten moduan, zuzenbidearen esparrutik estatuaren sorrera bideratzea, politikoki ez da zuzena. Egungo estatuak, eta horiengandik sortuak diren mundu mailako erakundeak Nazio Batuen Erakundea esate baterako, edo Europaren mailakoa, esaterako, Europako Batasuna, edo estatuak euren lurralderako eratzen dituzten legediak eta arauak euren interesak defendatzeko baino ez dituzte erabiltzen. Izan ere, erakunde guztien oinarrian estatuak daude. Estatuak eratu behar izaten dituzten erakunde eta legedi guztien helburua estatuen arteko eta estatuaren barneko ordena mantentzea da. Nazioarteko politika ikusirik, estatuak elkar gorrotatzen dutela, nabaria da, baina oreka izateko elkar hartu behar dute. Oreka, ordea, ez da betirako, eta edozein momentuan hautsi daiteke. Hori dela eta, itun eta gerra aldiak ematen dira.

Hain zuzen, historiak itun eta gerra aldiak izan ditu. Indarraren aldaketak, oreka hautsaraziz, tarteka itun edo gerra aldia ekarraraziko du. Historian zehar estatu nagusien artean itun ezberdinak egin izan dituzte: Westfalia, Viena, Versailles, Utrecht, Erromakoa... Gure herriak, ere, Espainia eta Frantziako inperioarekin itunak edo paktuak sinatu izan ditu. Kasu guztietan, normala denez, baldintzak eta arauak indartsuak inposatzen ditu. Itunak edo paktuak, ez du bakea adierazten, - inperialistek horrela azaltzen badute ere-, garaileen neurriko nahia eta inposaketa baizik.

Indar inperialisten kolaborazionistak ez badute horrela ikusten, ez da eskarmentuak hori ez duelako adierazten, askapen mugimenduari uko egin diotelako baizik. Inperialisten “bake”,

zuzenbide eta moralak zertarako eta zein helburuak dituen eta, horietan oinarrituz, deituriko bide instituzionalak ere nora eramango gaitzakeen garbi azaldu dugu. Bide instituzionala beraiena eta beraiantzat ipinia da, bidea ez dago egiteke bukatua baizik, eta bide horren helmuga jakina da, gure herria irenstea, hain zuzen.

Orain arteko eta ondorengo estatuen oinarria eta fundamentua eta, bide batez, estatua sortzera eta izatera eramango dutenak, bereziki, herri borondate eta indarra izango dira. Nazio arteko egoera ez da erabakiorra aprobetxagarria baizik. Estatua berreskuratzeko irtenbidea herria indartzean datza.

Estatuaren sorrera eta legitimitatea, alegia, herriari bakarri dagokio, eta ez nazio arteko legediari.